

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

Guardiako Udala

Ayuntamiento de Laguardia

2015





AURKIBIDEA / ÍNDICE

LABURDURAK	5
I. SARRERA	7
II. IRITZIA	8
II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia.....	8
II.2 Urteko kontuei buruzko iritzia.....	8
III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK.....	10
III.1 Aurrekontua, kontabilitatea eta diru-sarrerak	10
III.2 Langileria.....	11
III.3 Kontratazioa.....	11
III.4 Transferentziak eta diru-laguntzak	12
III.5 Berankortasuna eta bestelako alderdiak	12
IV. FINANTZAREN ANALISIA	13
V. URTEKO KONTUAK.....	16
ALEGAZIOAK	21
ABREVIATURAS.....	33
I. INTRODUCCIÓN	35
II. OPINIÓN	36
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad	36
II.2 Opinión sobre las cuentas anuales.....	36
III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN.....	38
III.1 Presupuesto, contabilidad e ingresos.....	38
III.2 Personal.....	39
III.3 Contratación	39
III.4 Transferencias y subvenciones.....	39
III.5 Morosidad y otros aspectos.....	40
IV. ANÁLISIS FINANCIERO	41
V. CUENTAS ANUALES.....	44



ANEXOS.....	49
A.1 Naturaleza del ente fiscalizado.....	49
A.2 Presupuesto y modificaciones presupuestarias	49
A.3 Impuestos, tasas y otros ingresos	50
A.4 Ingresos por transferencias y subvenciones	51
A.5 Ingresos patrimoniales y enajenación de activos.....	52
A.6 Gastos de personal	52
A.7 Compras de bienes corrientes y servicios e inversiones.....	53
A.8 Transferencias y subvenciones concedidas	54
A.9 Deudores y acreedores presupuestarios	55
A.10 Plan de Viabilidad presupuestaria y financiera.....	56
A.11 Análisis de contratación	58
A.12 Indicadores financieros y presupuestarios.....	59
A.13 Sociedad Proyecto Barbacana, SL.....	60
ALEGACIONES	63

Vitoria-Gasteiz, 2017ko urriaren 26a
Vitoria-Gasteiz, 26 de octubre de 2017



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

LABURDURAK

1372/1986 ED	Toki Erakundeen Ondasunen Arautegia.
20/2012 ELD	20/2012 Errege Dekretu Legea, aurrekontuaren egonkortasuna eta lehiakortasunaren sustapena bermatzeko neurriei buruzkoa.
3/2004 FA	3/2004 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoaren toki erakundeen aurrekontuei buruzkoa.
38/2013 FA	38/2013 Foru Araua, Arabako toki erakundeen aurrekontuaren egonkortasun eta finantzaren iraunkortasunari buruzkoa.
AFA	Arabako Foru Aldundia
ALHAO	Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala
DLO	38/2003 Lege Orokorra, Diru-laguntzei buruzkoa.
EIOZ	Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga
FOFEL	Arabako Toki-erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsa
HILBIZ	Hiri izaerako lursailen balio igoseraren gaineko zerga
HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia
LZ	Lanpostuen Zerrenda.
OHZ	Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga
SPKLTB	3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina.
TAOAL	7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen.



I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak otsailaren 5eko 1/1988 Legeak eta Epaitegiaren Osokoak onetsitako Lan Programak agindutakoari jarraikiz, Guardiako Udalaren 2015eko ekitaldiko Kontu Orokorraren fiskalizazio lana mamitu du.

HKEEk gauzatutako aurreko fiskalizazio lana 2001eko ekitaldiaren gainekoa izan zen.

Fiskalizazio lan honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezketasuna: Honako aurrekontuaren atal hauetan ezargarria den arautegia bete izana: aurrekontua, zuzenbide publikoko sarrerak, zorpetzea eta finantza eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak eta diru-laguntzen emakida. Azterketa lan hau fiskalizazioaren ekitaldiari dagokio, beharrezko irizten diren beste ekitaldi batzuei buruzko egiaztaketak egitea kaltetu gabe, fiskalizazio-gai den ekitaldian eragina dutelako.
- Kontabilitatea: Kontu Orokorra ezargarri zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datorrela egiaztatzea. Kontu Orokorrak honako atal hauek besarkatzen ditu: Udalaren eta bere sozietatearen Aurrekontuaren likidazioa, Egoeraren balantzea, Galera-irabazien kontua eta Oroitidazkia.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren eraginkortasun eta zuhurtasunari buruzko azterlan berariazkorik besarkatu; ezta, kudeaketa prozedurei buruzkorik ere. Nolanahi den ere, fiskalizazioan zehar sortu diren alderdi partzialak txosten honen III. idazpuruan aztertu ditugu.
- Udalaren egoera ekonomikoaren finantza analisia.

2014ko ekitaldirako udal aurrekontua 2014ko maiatzaren 19an onartu zuen Udalbatzak eta 2015eko ekitaldirako luzatu zen 2014ko abenduaren 30eko Alkatetzaren dekretu bidez.

Guardiako udalerriak 1.520 biztanle ditu 2015eko urtarrilaren 1eko erroldaren arabera; bere egituran udal administrazioaz gain Proyecto Integral Barbacana, SL sozietatea besarkatzen ditu, % 100 udal jabetzakoa dena eta helburua udalerrian eraikinak eta orubeak eraiki eta sustatzea duena.

Uraren hornidura eta saneamendu zerbitzua Arabako Errioxako Uren Partzuergoak ematen du eta Guardia-Arabako Errioxako kuadrillak hiri hondakinak kudeatzen kolaboratzen du eta hiri eta administrazio-kudeaketan laguntzen. Udala Guardiako Mendiko Anaiarte Zaharraren atal ere bada (herri-mendien kudeaketa).



II. IRITZIA

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

KONTRATAZIOA (Ikus A.11 eranskina)

- 1.- Udalaren tutoretzapeko etxebizitzaren kudeaketa 2008an esleitu zen urte bereko abendura arte; 2015ean 340.107 euroren kostua eragin du. Gauzatu ez ziren isilpeko luzapenak egin dira, araudiak baimentzen duen 4 urteko gehienezko iraupen aldia gaindituz; horrek publikotasun eta lehia printzipioak urratzen ditu.
- 2.- Udaltzako 2013an Arabako Lanak, SA foru sozietateari alde zaharrean zoladura jartzeko 2. fasearen obra kontratua agindu zion, sozietate honek 1,2 milioi euroren zenbatekoan esleitu zuena, nahiz ez daitekeen Udalaren berezko baliabidetzat har. Udalaren gobernatzaileak 2015eko urtarrian hiru aldaketa onartu zituen; aldaketa horien ondorioz aurrekontua % 6,4 murriztu zen eta hasierako proiektuko obra unitateen % 49 bertan behera utzi zituzten, beste berri batzuekin ordezkaturik. Aldaketa hauek egikaritu ostean formalizatu ziren; ordea, Udaltzako onartu behar zituzkeen, proiektua funtsetik aldatu zutelako eta beste lehiaketa bat bideratu.
- 3.- Argindarraren hornidura zuzenean esleitu zen, publikotasun eta lehia printzipioak urratuta. Zerbitzuak 2015ean 115.309 euroren kostua izan zuten.

Epaitegi honen ustetan, Guardiako Udalak, 1etik 3ra bitarteko paragrafoetan aipatutako ez-betetzeak alde batera, zuzentasunez bete du 2015eko ekitaldian ekonomia-finantzaren jardura arautzen duen lege arautegia.

II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

1. Udalak ez du Egoeraren Balantzearen Ibilgetua osatzen duten kontularitzako saldoen zehetasunik, 9,2 milioi euro egiten dutenak, eta honenbestez, ezin zehaztu izan dugu 2015eko abenduaren 31ko udalaren ondasun eta eskubideen egiazko egoera islatzen den.
2. Ibilgetu finantzarioak udal sozietateari dagokion 1,4 milioi euroren saldoa barne hartzen du eta kontularitzako erregistroek 714.090 euroren ondare garbia duela erakusten dute; ondarean 4tik 6ra bitarteko salbuespenek eragiten dute.
3. Udalak 2015ean Araba Garapen Agentzia, SArekin izenpetutako Hitzarmen bitartez 2017rako hirigintzako aprobetxamenduak geroraturik kobratzea adostu zuen, 188.868 euroren zenbatekoan; horiek, baina, ondare kontabilitatean erregistratu behar zituzkeen (ikus A.5 eranskina).



Barbacana Proiektu Osoa, SL (ikus A.13 eranskina)

4. Sozietatearen egoera balantzeko aktibo eta pasibo arruntean kobrantza eskubide eta ordainketa obligazioekin bat ez datozen saldoak barne hartu dira:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan		
	AKTIBOA	PASIBOA	ONDAREA
AFAri kobratu beharreko saldoa Merkataritzako Zordunetan erregularizatu	(159)		(159)
Udalari diru-lag. kontzep. ordaindu beharreko saldoa Hartzekodunetan erreg.		(410)	410
GUZTIRA	(159)	(410)	251

5. Sozietatearen egoera balantzeko Higiezin inbertsioen saldoa, 1,3 milioi eurorena, 99 garaje-plazari dagokiena, zuzendu egin behar da balorazio aldetik, zehaztu ezin daitekeen zenbatekoan.
6. Sozietateak 621.737 euroren balioa zuten eraikuntza eskubideen salmenta formalizatu zuen 2012an eta 721.214 euro kobratu eta eraikiko den eraikineko bi lokal (640 m²) eskuratu zituen; ordea, ez da eragiketa hau erregistratu. Sozietateak 2015ean kontratua desegiteko egintza judizialak abiarazi zituen, txosten hau idatzi dugun datan amaitu gabe daudenak.

Epaitegi honen iritzira, 1etik 6ra bitarteko paragrafoan adierazitako salbuespenak alde batera, Guardiako Udalaren Kontu Orokorra osatzen duten erakundeen Urteko Kontuek alderdi esanguratsu guztietan 2015eko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa eta abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena erakusten dute; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion bere eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, bertan jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.



III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duten printzipioak gehiegi eragiten ez dituzten akatsak ez ezik, kudeaketa hobetzeko azpimarratu nahi diren prozedurazko alderdiak ere azaleratu dira.

III.1 AURREKONTUA, KONTABILITATEA ETA DIRU-SARRERAK

- 2015eko Kontu Orokorra 2017ko martxoaren 9ko Osoko bilkurak onartu zuen; ordea, arautegiak 2016ko uztailaren 31ra arteko epea ematen zuen horretarako. Gainera, ez zituen udal sozietatearen Kontuak besarkatu, akziodunen Batzar Nagusiak data berean onartu zituenak; Batzarra udaleko zinegotziek osatzen dute.
- Aurrekontu-araudiak eta luzatutako aurrekontua egikaritzeko arauak kreditu osagarrientzako aparteko araubidea aurreikusten zuten, kreditu horiek metaturik gastuen % 5 gaindituko ez bazuten, eta halakoetan, alkateak onar ditzake. Muga hau kreditu osagarrien espedienteetarik 8tan gainditu zen, zeinak gastuen aurrekontua 414.768 euroan gehitu zuten; horregatik, Udalbatzak onartu behar zituzkeen. Gainera, kreditu osagarrietan egiten diren aldaketa orotarako ezargarriak dira aurrekontua izapidetzean eskatzen diren informazio, erreklamazio, publikotasun eta errekurtsioei buruzko arauak eta horiek guztiak ez zituen Udalak bete.
- Udalak erosketa guztietarako aurrekontua egikaritzeko faseak metatu zituen (ADO) eta gainera, gastua eta ordainketa azken hau gauzatu zen datarekin biak batera erregistratu zituen; honela, bada, 2015ean kontularitzaz kanpoko kontrola gauzatu behar izan da aitortutako obligazio eta aurrekontuaren egikaritzea mailaren gainean.
- Ibilgailuen gaineko zergaren urteko errolda eta zaborren seihilekoa alkatetzaren ebazpen bitartez onartu behar lirateke, ebazpenari publikotasuna emanaz eta aldi berean diru-bilketarako borondatezko aldiak finkatu ahal izanik.
- Zerga nagusien ordenantzak 2003an argitaratu ziren. Gerora, foru arautegian hainbat aldaketa egin dira eta komeni da horiek gaurkotzea. Udal tasen ordenantzak bildu eta argitara ematea ere komeniko litzateke.
- Guardiako eskola publikoak mugakide diren 3 udalerriri zerbitzu ematen die eta horiek 2015ean 24.919 euroren ekarpenak egin zituzten mantentze-lanetan parte hartzeko. Komenigarria litzateke administrazioen arteko lankidetzak haur hitzarmen bidez arautzea.
- Udalak aldi behin alderatu egin behar litzuzke zerga zorren kontularitzako saldoak diru-bilketarako sistema laguntzaileak ematen duen informazio xehearekin. Halaber, AFAko nahitaezko dirubiltze zerbitzuari aldi behin eskuan dituen Udalaren ordainagiri eta likidazioen xehapena eskatzea komeniko litzateke, kontularitzako informazioa alderatzeko.
- 2015eko abenduaren 31n Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren zor saldoa 148.396 eurorena zen. Komeni da diru-bilketako betearazi beharreko prozedurak enbargoa baliatuta osatzea eta zorrak preskribatzea saihestea.



- Udal sozietateak duen jarduera mugatua ikusita, desegiteko aukera aztertzea gomendatzen dugu.

III.2 LANGILERIA

- LZk ez du 7 funtzionarioen berariazko osagarriak zein diren zehazten; ez daude jasota, gainera, kopuruak zehaztu eta lan baldintzak arautuko dituzten Udalbatzaren erabakiak. Lan-kontratuko langileei dagokienez, LZk lanpostuaren izena baizik ez du jasotzen, kontratuak arautzen dituen araubide juridikoa zehaztu gabe; horren gaineko udalbatzaren erabakirik ere batere ez da jaso.

- 2015eko abenduan indarrean zeuden obra edo zerbitzu jakineko zortzi lan kontratu azaleratu dira, nahiz 2012 baino lehenago gauzatu ziren. Beste bi kasutan, etengabe berritu dira 2007az geroztik. Egokiagoa zatekeen LZn dauden 10 lanpostu hutsak betetzeko bitarteko kontratuak gauzatzea, harik eta nahitaezko hautaketa-prozesu bidez behin betiko zuzkitu bitartean.

Gainera, 2015eko abenduaren 31n bi langile zeuden LZn jaso gabeko egitekoak betetzen, obra edo zerbitzu jakinerako kontratu bidez, 2009an errepideak konpontzeko gauzatutakoak. Egoera hau zuzentzea komeni da eta horretarako Udalbatzak LZ aldatu beharko luke edo zerbitzuak berrantolatu.

- Langile guztiei 2015ean ordainsarien % 0,6 ordaindu zitzairen produktibitate-osagarri kontzeptuan, guztira 3.337 euroren zenbatekoan. Udalbatzak osagarria ordaintzea onartu zuen eta horretarako funts bat sortu zuen, langileen artean soldatekiko ehunekoan banatuz; ordea, osagarri honen helburua da aparteko errendimendua edo funtzionarioak bere lana betetzeko erakusten duen interesa edo ekimena saritzea.
- Zinegotzientzat bileretara joateagatiko egun-sariak ezartzen zituen 2015eko Udalbatzaren erabakia ez zen ALHAAAn argitara eman. 2015ean 1.850 euro ordaindu ziren.

III.3 KONTRATAZIOA

- 2013ko abenduan lizitazioak eta emaitzak Sektore Publikoko Kontratazioaren Plataforman argitara emateko obligazioa jaso zen, bai zuzenean bai udal plataformarekiko lotura bidez (Merkatu-batasunaren Bermeari buruzko 20/2013 Legearen 3. Xedapen Gehigarria); udalak, baina, ez du betekizun hori bete.
- Erosketa txiki modura izapidetu da zerbitzu bate eta hornidura baten zuzeneko esleipena, guztira 48.865 eurorena; horiek prozedura negoziatu modura izapidetu behar ziratekeen (ikus A.11 eranskina). Gainera, zerbitzu juridikoak kontratatzen direnean alde zuzenetik finkatu behar dira prestazioak eta ordainsariak.



III.4 TRANSFERENTZIAK ETA DIRU-LAGUNTZAK

- Biasteri-Arabako Errioxako kuadrillak mankomunaturik ematen du zabor bilketa zerbitzua eta Udalarri laguntza ematen dio hirigintza, gizarte-laguntza eta agirien artxiboko lanetan. Unean-unean errepideen mantentze lanetan udal mandatuak egikaritzen ditu. Udalak Kuadrillari egindako ordainketak, hirigintzakoak izan ezik, 4. kapituluaren erregistratzen ditu, guztira 187.517 euroren zenbatekoan. Kuadrillak arautzen dituen Foru Arauak eskualde bakoitzeko udalekin lankidetzan aritzea aurreikusten du; ordea, ez dira Udalean jaso zerbitzuak mankomunatzen dituzten Udalbatzaren erabakiak, ez eta zerbitzu eta lanen mandatu-ebazpenak ere. Gainera, Kuadrillak ez du berezko baliabiderik hirigintzako aholkularitzarako eta errepideetako lanetarako.
- 2015erako luzatu zen 2014ko aurrekontuaren eranskinak ez zuen diru-laguntzen nahitaezko eranskina besarkatzen, diru-izendapen izendunak zerrendatu behar zituzkeenak: 50.874 euroren laguntzen 4 onuradun. Diru-laguntza izendunetatik 3tan ez zen dagokion hitzarmena onartu; halaber, emakida ebazpenek ere ez zituzten norakoa eta emakida baldintzak zehazten. Guztira 6.485 euroren laguntza izendun eta zuzenak jaso dituen Lucerna futbol taldea elkartek laguntzei emandako norakoa ez zuen osorik justifikatu.
- 6.184 euroren diru-laguntzak zuzenean eman zitzaizkien 6 kultur erakunderi, kreditu erabilgarriak lehia bidezko konkurrentzia bidez esleitu beharrean eta honenbestez, 2008an onartutako ordenantza urratuz.

III.5 BERANKORTASUNA ETA BESTELAKO ALDERDIAK

- Udalak ez ditu ordainketa epeei buruzko nahitaezko hiruhileko txostenak mamitzen eta kontularitzako erregistroek ez dituzte obligazioak aitortzeko datak zehazten.
- Alkatetzako ebazpenen liburuak ez ditu ebazpenak, langileen kontratazioak eta diru-laguntzen onespenez jasotzen, kontratuetan beretan edo kontularitzako agirietan dokumentatuak daudenak. Espedienteetan artxibatutako ebazpenak badaudela ikusi dugu, baina liburuan jaso ez direnak. Dekretuen zerrendan jaso ez zirenez gero, Udalbatzari ere ez zitzaion horren berri eman. Berebat, Gobernu-batzarraren erabakien berri ematea ere nahitaezkoa da, alkatearen eskuordez baitihardute.
- Toki erakundeak gardentasun eta jendaurreko informaziorako sarbideari buruzko araudira egokitzea 2015eko abenduan amaitu behar zatekeen eta Udalak ez du alderdi hori landu. Informazio ekonomikoari dagokionez argitara eman behar dira: aurrekontu eta kontu orokorrak, aurrekontuaren egonkortasun eta iraunkortasunari buruzko txostenak, baliatutako kontratazio moldeen gaineko estatistika datuak, zinegotzien ondasun eta jarduera aitortpenak, emandako diru-laguntza eta laguntzak, gauzatutako hitzarmen eta kudeatzeko gomendioak eta Udalaren jabetzako diren ondasun higiezin zerrenda.



IV. FINANTZAREN ANALISIA

Udalak azken ekitaldietan likidatutako magnitude nagusien bilakaera ondoko taulan dago zehaztua eta indarreko Bideragarritasun Planaren aurreikuspenak lehenengo ekitaldirako eta fiskalizazio-gai izan den urterako:

	Euroak milakotan						Euroak biztanleko			
	Likidazioa(*)				Biderag. Plana		Likidazioa(*)			
	2012	2013	2014	2015	2012	2015	2012	2013	2014	2015
Zergak eta tasak (1, 2. eta 3 kap.).....	1.462	1.262	1.292	1.411	1.347	1.391	945	826	851	929
Transf. eta diru-lag. arrunt. (4. kap.).....	1.059	1.164	1.105	1.189	1.150	1.268	684	762	728	782
Ondare sarrerak (5. kap.)	41	58	62	47	72	47	26	38	41	31
A. Diru-sarrera arruntak	2.562	2.484	2.459	2.647	2.569	2.706	1.655	1.626	1.620	1.742
Langile gastuak (1. kap.).....	807	776	780	787	961	956	521	508	514	518
Ondasun arruntan erosk. eta zerb. (2. kap.) ...	995	976	1.465	942	1.512	1.089	643	639	965	620
Transf. eta diru-lag. arrunt. (4. kap.).....	267	254	256	240	300	300	173	166	169	158
B. Funtzionamendu gastuak.....	2.069	2.006	2.501	1.969	2.773	2.345	1.337	1.313	1.648	1.296
Aurrezki gordina (A-B).....	493	478	(42)	678	(204)	361	318	313	(28)	446
Finantza gastuak (3. kap.).....	21	31	41	39	23	101	13	20	27	26
Emaitza arrunta.....	472	447	(83)	639	(227)	260	305	293	(55)	420
Maileguen amortizazioa (9. kap.).....	163	184	260	561	175	260	105	120	171	369
Aurrezki garbia	309	263	(343)	78	(402)	-	200	173	(226)	51
Inbertsio errealen besterentzea (6. kap.).....	389	205	8	142	345	-	251	134	5	93
Jasotako kapital diru-laguntzak (7. kap.).....	2.092	1.795	700	531	1.793	400	1.351	1.175	461	349
Inbertsio errealak (6. kap.).....	(1.109)	(1.600)	(2.251)	(736)	(2.180)	(400)	(717)	(1.047)	(1.483)	(484)
Emandako kapital diru-laguntzak (7. kap.).....	(66)	(27)	(52)	(50)	-	-	(43)	(17)	(34)	(33)
Kapitaleko eragiketen emaitza.....	1.306	373	(1.595)	(113)	(42)	-	842	245	(1.051)	(75)
Eragiketa ez finantz. emaitza (1-7 kap.) ...	1.778	820	(1.678)	526	(269)	259	1.147	537	(1.106)	345
Gastu Orokorret. Diruzaintza Geldikina....	17	1.038	580	571	-	-	11	679	382	376
Epai eta gtu. juridikoetarako zuzkidura ...	(1.465)	(860)	(100)	(75)	(1.355)	-	(946)	(563)	(66)	(49)
Udalaren zorpetzea	480	996	736	175	1.132	1.737	310	652	485	116
Udal sozietatearen zorpetzea	306	274	242	209	310	218	198	179	179	137

(*) 2012, 2013 eta 2014: HKEEK fiskalizatu gabeko datuak.

Sarrera arruntak: % 3 egin dute gora 2015 eta 2012 bitartean, transferentziek gora eginez baina norberaren diru-sarrerak murriztuz:

- **Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak:** Behera egin dute diru-sarrera hauek, batik bat, 2012an EIOZen sarrera maila handiaren ondorioz. 2015eko igoera 2015ean ekitaldi horretako sarrerak kitatu zituen JEZek eragin du, zergaren erroldan igoerak eragin zituena. Zerga eta tasen tarifak ez dira aldi horretan aldatu.



- **Transferentzia eta diru-laguntza arruntak:** % 12 egin dute gora, 2014-2015eko aparteko ekarpenen ondorioz itunpeko zergetan partaidetza antzeko ehunekoan hobetu izanaren ondorioz. Tutoretzapeko etxebizitzien kontzeptuko diru-laguntzak izandako % 22ko iguera ere azpimarratzekoa da, okupazio handiagoaren ondorioz.

Funtzionamendu gastuak: % 5 egin dute behera eta laurtekoan gastu kapitulu guztietan murrizketak izan dira:

- **Langile gastuak:** % 2,5 egin dute behera gizarte aseguruetan gastua murriztu izanaren ondorioz, izan ere 2012an atzerapenak jaso dira, eta 2015eko abenduko kuotak urte horretan ez erregistratu izanaren ondorioz, ordainsarien zenbatekoak hirurtekoan gora egin duela.
- **Ondasun arrunten erosketak eta zerbitzuak:** % 5 egin dute behera mantentze gastuak eta hornidurakoak 2012ko ekitaldiarekiko % 26 murriztu izanaren ondorioz (argindarra, gasa eta beste). Kontusail garrantzitsuena, tutoretzapeko etxebizitzien kontratua, % 4 igo da eta beste gastu kontusail batzuk ere igo dira. 2014an ezohiko gastuak eta aurreko ekitaldietakoak erregistratu ziren, 499.018 euroren zenbatekoan, eta horrek ekitaldi horretako erosketetan gorakada eragin zuen; horietatik 400.000 euro obra batzuen EIOZren itzulketari dagozkio, zeinentzat lizentzia eskatu zen, baina ez ziren gauzatu.
- **Transferentzia eta diru-laguntza arruntak:** % 10eko beheraldia eskualdeko Kuadrillak egindako ekarpenetan datza.

Aurrezki gordina eta garbia: Lehenengo bi urteetan aurrezki gordina sarrera arrunten % 19 zen eta 2015ean hobera egin zuen ekitaldi horretako unean uneko diru-sarrerengatik eta gastuek behera egin izanaren ondorioz. Finantza zamak gora egin du laurtekoan, izan ere 2013an 700.000 euroren mailegu bat kontratatu zen eta 2015ean alde aurreko amortizazioak egin ziren. Azken honek aurrezki garbiak puntualki behera egitea eragin zuen 2015ean.

Kapital eragiketen emaitza: Lehenengo bi urteetan diru-laguntzak (EAE Alde Zaharrerako sarbideak hobetzeko, 3,1 milioi euroren zenbatekoan) inbertsioak baino handiagoak izan dira eta 2014an jada zuzendu da desoreka. Azken bi urteetan inbertsio nagusia Alde Zaharraren zoladura da, ehuneko handi batean Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren bidez finantzaturikoa. Kapitaleko diru-laguntzak bat datoz udal sozietateari bere gastuetarako emandakoekin eta mailegu baten finantza zamarekin.

Diruzaintza geldikina: 2012ko abenduan zenbatekoa oso txikia zen eta unean uneko ordainketa esanguratsuak aurreikusiak zeuden, 1,5 milioi euroan zuzkituak; horren aurrean Saneamendu Plan bat onartu zen. Eragiketa arruntek sortutako aurrezkiak eta kapitaleko



eragiketen orekak bideratu dute 2015eko abenduaren 31n geldikina izatea, sarrera arrunten % 21 egin duena.

Zorpetzea: Udal zorpetzeak, udal sozietatearena aintzat hartuta, sarrera arrunten % 14,5 egin zuen 2015eko abenduaren 31n.

Ondorioa: Udalak duen eragiketa arrunten egiturak 2015ean sarrera arrunten gainean % 25,6ko aurrezki gordin maila eskuratzea bideratu du, etorkizuneko inbertsio planak finantzatzeko adinako baliabideak sortuz, unean-unean geldikina (sarrera arrunten % 21) eta diru-laguntzak erabiliz.

Aurrekontuaren egonkortasuna: 1/2013 Foru Arauan ezarritakoari jarraiki, Udalaren artekaritzak txostena egin zuen aurrekontuaren egonkortasun printzipioa, zor publikoa eta gastuaren araua betetzen zela adieraziaz. 2015eko Likidazioari buruzko txostenak ondorioztatu du:

- Aurrekontuaren egonkortasunari buruzko helburua bete da, eragiketa ez finantzarioekin 466.795 euroren superabita eskuratu baita.
- Zor publikoaren helburua bete da, sarrera arrunten % 14,5 egin duelako.
- Gastuaren araua bete da, 2015 eta 2014ko ekitaldietako aurrekontu likidazioen artean zenbagarria den gastuak behera egin izanaren ondorioz.

2012-2016 Bideragarritasun Plana (21/2012 FA): Plana garatu zen zenbait auzitan aurkako epaia jasoko zutela aurreikusita; ordea, garrantzitsuena azkenik (2014) Udalaren aldeko suertatu zen. Honela, bada, 1,8 milioi euroren aparteko ordainketak aurreikusten zituen Planaren balioespenak 2014an erregistraturiko 499.018 eurotara mugatu ziren. Zorpetze berriari dagokionez, 2013an 700.000 euroren mailegua kontratatu zen, aurreikusitako 2 milioi eurorena beharrean; aldeaz aurreko amortizazioak egin direnez gero, 2015eko abenduaren 31n 175.591 euro gelditzen zaizkie itzultzeko.



V. URTEKO KONTUAK

V.1 UDALA

2015-EKO EKITALDIAREN AURREKONTU LIKIDAZIOA Euroak milakotan

SARRERAK	AURREKONTUA				ESKUB	.KOB.R.		%
	ERANSK.	HASIER	ALDAK.	B.BETIK.	AITORT.	KOBR.	GABEA	EXEK.
1.- Zerga zuzenak	A.3	840	-	840	908	867	41	108
2.- Zeharkako zergak	A.3	30	-	30	64	58	6	213
3.- Tasak eta bestelako sarrerak	A.3	423	-	423	439	414	25	104
4.- Transferentzia arruntak	A.4	1.065	-	1.065	1.188	1.143	45	112
5.- Ondare sarrerak	A.5	43	-	43	47	47	-	112
6.- Inbertsio errealeen besterentzea	A.5	391	-	391	142	142	-	36
7.- Kapitalezko transferentziak	A.4	1	559	560	531	490	41	95
8.- Finantza aktiboak		-	471	471	-	-	-	-(*)
SARRERAK GUZTIRA		2.793	1.030	3.823	3.319	3.161	158	99

(*) Exekuzioaren % kalkulaterakoan Diruzaintza Geldikina txertatzearen eragina zuzendu da.

GASTUAK	AURREKONTUA				OBLIG.	ORDAIN.		%
	ERANSK.	HASIER	ALDAK.	.B.BETIK.	AITORT.	ORDAINK.	GABE	EXEK.
1.- Langileria-gastuak	A.6	818	28	846	787	787	-	93
2.- Ondasun arrunten erosk. eta zerb.	A.7	976	29	1.005	942	879	63	94
3.- Finantza gastuak		45	7	52	39	39	-	75
4.- Transferentzia arruntak	A.8	285	1	286	240	215	25	84
6.- Inber. errealak	A.7	1	736	737	736	680	56	100
7.- Kapitalezko transferentziak	A.8	53	-	53	50	50	-	94
8.- Finantza aktiboak		26	(18)	8	-	-	-	-
9.-Finantza pasiboak		260	358	618	561	561	-	91
GASTUAK GUZTIRA		2.464	1.141	3.605	3.355	3.211	144	93
SARRERAK - GASTUAK		329	(111)	218	(36)	-	-	

AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA Euroak milakotan

	ERANSK.	HASIER.	ZUZENK./	KOBR./	AZKEN
		ZORRA	BALIOG	ORDAIN.	ZORRA
Zordunak	A.9	365	(8)	86	271
Hartzekodunak	A.9	560	114	167	279
AURREKONTU ITXIEN EMAITZA			106		

AURREKONTUAREN EMAITZA Euroak milakotan

Kitatutako eskubideak	3.319
Aitortutako obligazioak	(3.355)
INDARREKO AURREKONTUKO AURREKONTUZKO ERAGIKETEN EMAITZA	(36)
AURREKO EKITALDIETAN KITATUTAKO AURREKONTUKO ERAGIKETEN EMAITZA	106
EKITALDIAREN AURREKONTU EMAITZA	70
Finantziario desbideratzeak	-
Diruzaintza geldikinarekin finantzatutako gastuak	424
DOITUTAKO AURREKONTUAREN EMAITZA	494



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

DIRUZAINZA GELDIKINA

Diruzaintza geldikina 2015.1.1ean	580
Ekitaldiaren aurrekontu emaitza	70
Kaudimengab. zuzkiduraren hornid. bariozioa	(79)
DIRUZAINZA GELDIKIN LIKIDOA 2015.12.31-N	571
Diruzaintza	1.011
Aurrekontuko zordunak	429
Aurrekontuz kanpoko zordunak	16
Aurrekontuko hartzekodunak	(423)
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak	(155)
Kaudimen-gabez. zuzkidura	(307)
DIRUZAINZA GELDIKIN LIKIDOA 2015.12.31-N	571
Finantzaketa atxikia duten gastuetarako Diruzaintza Geldikina	-
GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZA GELDIKINA	571
Epaiak, abokatu eta prokuradoreen ordainsariak	(75) (A.9)
GASTU OROKORRETARAKO DOITUTAKO DIRUZAINZA GELDIKINA	496

ZORPETZEA 2015.12.31-N **175**



EGOERAREN BALANTZEA 2015 ETA 2014-KO ABENDUAREN 31-N				Euroak milakotan	
AKTIBOA	2015	2014	PASIBOA	2015	2014
IBILGETUA	10.647	11.630	FUNTS PROPIOAK	11.043	11.474
Erabilera orokorrera emana.....	11	655	Ondarea	10.293	10.293
Ibilgetu ezmateriala.....	23	41	Lagatako ondarea.....	(103)	(103)
Ibilgetu materiala.....	9.211	9.532	Erabil. orokor. emand. ondarea.....	(15.993)	(14.694)
Ibilgetu finantzarioa.....	1.402	1.402	Ekitaldi itxien emaitza	15.978	15.875
			Ekitaldiaren emaitza.....	868	103
			HARTZEKODUNAK EPE LUZERA	-	511
ZORDUNAK	137	137	HARTZEKOD. EPE LABURRERA	753	938
Indarreko ekitaldiaren aurrek.	158	-	Indarreko ekitaldiaren aurrek.	144	-
Ekitaldi itxien aurrek.....	271	365	Ekitaldi itxien aurrek	279	560
Askotariko zordunak.....	15	-	Bestel. hartzekodun ez aurrek.....	40	36
Entitate publikoak.....	-	-	Erakunde publiko hartzekodunak.....	32	34
Kaudimengab. zuzkid.	(307)	(228)	Beste zor batzuk.....	175	225
			Jasot. bermeak eta gordailuak	83	83
FINANTZA KONTUAK	1.012	1.156			
Bank. ez diren bst. kont.	1	1			
Diruzaintza	1.011	1.155			
AKTIBOA GUZTIRA	11.796	12.923	PASIBOA GUZTIRA	11.796	12.923

2015 ETA 2014-KO EKITALDIETAKO GALERA-IRABAZIEN KONTUAK				Euroak milakotan	
GASTUAK	2015	2014	SARRERAK	2015	2014
Langileria-gastuak.....	792	780	Negozio zifraren zenb.....	210	206
Ibilgetua amortizatzeke zuzk.....	419	438	Zerga zuzenak	908	799
Horniduren aldaketak	79	64	Zeharkako zergak	64	77
Kanpoko zerbitzuak.....	937	967	Jasotako transf. eta dirul.....	1.719	1.805
Emand. Transf. eta dirulag.	290	309	Bestelako sarrerak.....	414	266
USTIAPENAREN MOZKINA	798	595			
Finantza gastuak.....	39	41	Balore negoziag. sarrerak.....	3	6
JARDUERA ARRUNT. MOZKINAK	762	560	FINANTZA EMAITZA NEGATIBOA	36	35
Ekitaldi itxien gastu-galerak.....	8	4	Ekitaldi itxien sarr. eta mozkinak	114	55
EKITALDI ITXIEN MOZKINAK	106	51			
Aparteko galerak	-	508	APARTEKO EMAITZA NEGATIBOAK	-	508
EKITALDIAREN MOZKINA	868	103			



V.2 PROYECTO INTEGRAL BARBACANA, SL SOZIETATEA

EGOERAREN BALANTZEA 2015 ETA 2014-KO ABENDUAREN 31-N

Euroak milakotan

AKTIBOA	ERANSKINA	2015	2014	PASIBOA	ERANSKINA	2015	2014
AKTIBO EZ ARRUNTA		1.281	1.281	FUNTS PROPIOAK		714	728
lbilgetu ukiezina.....	A.13	31	31	Kapitala		1.400	1.400
lbilgetuko inbertsioak.....	A.13	1.250	1.250	Aurreko ekitaldietako emaitza		(1.331)	(1.315)
				Bazkideen beste ekarpen batzuk....		659	659
				Ekitaldiaren emaitza.....		(14)	(16)
				PASIBO EZ ARRUNTA		930	963
				Kreditu erakundeekiko zorrak e/luz. A.13		209	242
				Epe luzeko bestel. zorrak A.13		721	721
AKTIBO ARRUNTA		785	782	PASIBO ARRUNTA		422	372
lzakinak	A.13	622	622	Zorrak epe laburrera	A.13	410	360
Merkataritzako hartzek	A.13	161	158	Merkataritzako hartzekodunak	A.13	12	12
Finantza inbertsioak epe laburrera.....		2	2				
AKTIBOA GUZTIRA		2.066	2.063	PASIBOA GUZTIRA		2.066	2.063

2014 ETA 2015-EKO EKITALDIETAKO GALERA-IRABAZIEN KONTUA

Euroak milakotan

	2015	2014
Bestelako ustiaketa sarrerak	2	3
Bestelako ustiaketa gastuak	(14)	(16)
USTIAPENAREN EMAITZA	(12)	(13)
Finantza gastuak.....	(2)	3
EMAITZA FINANTZARIOA	(2)	(3)
EKITALDIAREN EMAITZA	(14)	(16)





GUARDIAKO UDALARI DAGOKION 2015EKO EKITALDIKO FISKALIZAZIO TXOSTENAREKIKO ALEGAZIOAK

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

KONTRATAZIOA (ikus A.11 eranskina)

1.- Babespeko udal-etxebizitzaren kudeaketa —2015ean 340.107 euroko kostuz— 2008an esleitu zen aurtengo abendura arte. Formalizatu ez diren isilbidezko luzapenak izan dira, eta araudiak onartutako 4 urteko gehieneko iraupena gainditu da. Hortaz, ez dira bete publikitatearen eta lehiaren printzipioak.

ALEGAZIOA

Jasotako dokumentazioaren arabera, alkate andrea buru duen Udalbatzak, 2008ko martxoaren 12an, Guardiako La Barbacana adinekoen zentroaren kudeaketa lehiaketa eta prozedura ireki bidez esleitzeko baldintza tekniko eta administratiboen agiria onartu zuen. *(Aktaren ziurtagiria erantsita doa – I. eranskina).*

Alkate andrea buru zuen 2008ko maiatzaren 14ko Udalbatzaren bilkuraren aktan, erabaki hau jasota dago: “AFAko GOFIko gizarte-politikako eta gizarte-zerbitzuetako sailak igorritako txostena ikusi ondoren, adierazitako lizitazioan aurkeztutako proposamen barrarekin lotuta —txosten horretan proposatzen da adierazitako lehiaketa hutsik deklarada dila, eskatutako gutxieneko baldintzetara egokitzen ez delako, administrazio-klausulen agirian zehaztutako puntuazioa aplikatzeari dagokionez—”. Ildo horretatik, Udalbatzak erabaki du lehiaketa hutsik uztea, AFAko GOFIren aipatutako txostena oinarri hartuta, eta dagokion prozedura negoziatuari ekitea, SPKLaren 154.C) artikulua indarrez. Gainera, alkateari ahalmena ematen zaio gaitutako gutxienez hiru enpresari eskaintzak eskatzeko, eta ahalmena ematen zaio, era berean, lizitatuazaleekin negoziatzeko haiek aurkeztutako eskaintzak. *(Aktaren ziurtagiria erantsita doa – II. eranskina).*

Jasota dago, halaber, 2008-06-18an alkateak, aipatutako prozedura negoziatuan eskaintzak aurkezteko, gonbidapenak luzatu zizkiela hiru enpresari (Adoretzuak SC; GSR Gestión de Servicios Residenciales eta Centro Gerontológico de Espejo). *(Kopiak erantsita doaz – III. eranskina).*

2008-07-16ko Udalbatzaren aktan jasota dago, orobat, prozedura negoziatu bidezko esleipen-erabakia, aurkeztutako eskaintza bakarraren aldekoa (GSR), La Barbacana adinekoentzako zentroaren kudeaketa integralerako. *(Erantsita doa – IV. eranskina).*

Aurrekariak ikusirik —zehazki, AFAko GOFIren adierazitako txostena—, agerian da kontratazio-prozesua AFAko sail horrek babeste zuela. Izan ere, adierazitako saila AFAko Gizarte Zerbitzuetako Sailaren eta Guardiako Udalaren arteko hasierako lankidetzahitzarmena luzatzeko proposamenak hurrenez hurren igorri eta sinatu ditu, adinekoei zuzendutako etxebizitza komunitario bat kudeatu eta mantentzeko. Hala izan da 2015eko abenduaren 23ra arte. Egun horretan, bi aldeek beste lankidetzahitzarmen bat sinatu zuten. Alabaina, AFaren inolako jarraibiderik ez dago jasota instalazio hori berriro esleitzeko

beharraren inguruan, hasierako lau urteak igaro ondoren. (2015eko hitzarmen berria erantsita doa – V. eranskina).

2.- Udalbatzak Arabako Lanak SA foru-sozietateari eskatu zion alde zaharra zolatzeko 2. fasearen obra kontratua. Sozietate horrek 1,2 milioi eurotan esleitu zuen kontratua, hura Udalaren berezko bitartekotzat hartzen ez den arren. Udaleko Toki Gobernu Batzordeak, 2015eko urtarrilean, hiru aldaketa onartu zituen. Horiek aurrekontua % 6,4 murriztu zuen eta hasierako proiektuko obra unitateen % 49 ezabatu zituen, horien ordean obra berriak ezarrita. Aldaketa horiek gauzatu ondoren formalizatu ziren. Udalbatzak onartu behar zituen eta proiektuaren aldaketa nabarmena ekarri zuten. Beraz, beste lizitazio bat egin behar zen.

ALEGAZIOA

Aipatutako kudeaketa-agindua Guardiako Udal honek sinatu zuen Arabako Lanak SAU AFAko foru-sozietate publikoarekin, 2013ko urriaren 22an, Daniel Anzizar Oroz jaunak igorritako txosten juridikoaren ondoren, aipatutako Arabako Lanak SAU sozietateko zuzendari juridiko gisa. Hare kopia erantsita doa —VI. eranskina—.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2015eko martxoaren 19ko bilkuran, Obretako zinegotziak proposatuta, onartu egin zituen 1., 2. eta 3. obra-aldaketak, proiektu honi dagozkionak: “Guardiako hirigune historikoaren azpiegiturak berritzea eta zolatzeta. 2. fasea”. Era berean, 2015eko urtarrilaren 16ko eta 2015eko otsailaren 5eko Tokiko Gobernu Batzarraren aktetan jasota dagoenez, obretako zinegotziak berak kudeaketa egin zuen Arabako Lanak sozietateko teknikariek zuzenean (kontuan hartu zen zegozkion zenbatekoen arabera, Tokiko Gobernu Batzarrak onar zitzakeela kontuan hartu zen). Alegatzen da, nolahi ere, obra hori esleitzeko prozesua Arabako Lanak foru-sozietate publikoak osorik gauzatu zuena, aipatutako aginduaren indarrez. Hortaz, beste esleipen bat eskatuko duen edozein aldaketa ere adierazitako aginduaren xede zen. (Kopia erantsi da – VII. eranskina).

3.- Energia elektrikoaren hornidura, 2015ean 115.309 euroko kostuaz, zuzenean esleitu zen, publikitate- eta lehia-printzipioak bete gabe.

ALEGAZIOA

Energia elektrikoaren hornidura Iberdrola enpresak egiten du aspaldidanik. 2015eko ekitaldiko udalbatzek ez zuten hautabidezko planteamendurik izan gai horren inguruan.

II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

1.- Udalak ez du 9,2 milioi euroko ibilgetu material osatzen duten elementuen xehetasunik. Hortaz, ezin izan dugu zehaztu horiek 2015eko abenduaren 31ko udal-ondasunen eta -eskubideen benetako egoera islatzen ote duten.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ALEGAZIOA

Udalak 2003an egindako inbentario bat du. Berori euskarriaren arazo informatikoengatik egun berreskuratu ezin den sistema informatiko batean kargatu zen. Arazo informatiko horren ondorioz, udal-kontabilitatean zeuden datuak hartu ziren oinarri; baina, sistema informatikoa Arabako Foru Aldundiaren esku dagoenez, horrek, arrazoi operatiboak direla eta, eskuraezin uzten ditu 7 urtetik gora duten erakundearen kontabilitate-datuak; beraz, erakundeak 2008 eta 2017 arteko ekitaldietako kontabilitate-datuak besterik ez ditu eskuragarri.

Era berean, 2017ko ekitaldian, aurrekontu-aplikazio bat dago (920 643 000 – udal-inbentarioa), 20.000,00 euroko zenbatekoaz, udal-inbentarioa eguneratu eguneratzeko.

2.- Finantza-ibilgetuan, udal-sozietateari dagokion 1,4 milioi euroko saldoa dago, eta horren kontabilitate-erregistroek 714.090 euroko ondare garbia dagoela ematen dute aditzera; era berean, 4.etik 6.era bitarteko salbuespenen eraginpekoa.

ALEGAZIOA

Udalak, 2016ko ekitaldiaren kontu orokorrean, egoera hori errealizatu du. Horretarako, balio-narriaduraren ondoriozko hornidura bat egin du eta, horrela, ekitaldi honetan, udal-sozietate publikoaren ondare garbiari doituta utzi du zenbatekoa ekitaldi honetan. (*Ikus VIII. eranskina*)

3.- Udalak, 2015ean, Araba Garapen Agentzia SArekin hitzartu zuen hirigintza-aprobetxamenduak 2017rako atzeratutako kobratzea, 188.868 euroko zenbatekoaz. Zenbateko hori ondare-kontabilitatean erregistratu behar zuen (ikus A.5 eranskina).

ALEGAZIOA

Egia izanik Udalak 2015ean hitzarmen bat sinatu zuela Araba Garapen Agentzia SA foru-sozietate publikoarekin, Casablanca industria-poligonoaren hirigintza-aprobetxamenduak kobratzeko, erabaki zen hura ez kontabilizatzea, zuhurtzea-printzipioa kontuan izanik eta hura kobratzeak sorrarazten zuen ziurgabetasunaren ondorioz.



Barbacana SL proiektu integrala (ikus A.13 eranskina)

4.- Sozietatearen egoera-balantzeko aktiboan eta pasibo korrontean, kobratzeko eskubideei edo ordaintzeko betebeharrei dagozkion Sozietatearen egoera-balantzea jasotzen da.

ALEGAZIOA

Administrazio Kontseiluak erabaki zuen udal-sozietate publikoaren urteko kontuak kanpoko enpresa batek egitea.

Udalak behin eta berriz adierazi zuen “bazkideen bestelako ekarpenak” gisa aitortutako zenbatekoak ezin zirela halakotzat hartu, udal-aurrekontuan kapitaleko Diru-Laguntzen 7. kapituluari jasota baitaude, ez, ordea, ekarpen gisa.

2017ko ekitaldi honetarako, egoera hori zuzenduko da.

5.- Sozietatearen egoera-balantzeko ondasun higiezinak inbertsioen saldoa, 99 garaje-plazari dagokienez, behar bezala baloratu behar da, zehaztu ezin den zenbateko baten arabera.

ALEGAZIOA

Ikusirik aurreko ekitaldietan salmentarik ez dagoela, azken ekitaldietan, haiek sal daitezen sustatzeko, Administrazio Kontseiluak erabaki zuen haien salmenta-prezioa txikiagotzea, hori Sozietatearen kontuetara intsuldatu gabe. Egoera hori 2017ko ekitaldian zuzenduko da.

6.- Sozietateak, 2012an, 621.737 eurotan baloratutako eraikuntza-eskubideen salmenta formalizatu zuen. 721.214 euro kobratu eta etorkizunean eraiki beharreko eraikineko bi lokal lortu zituen (640 m²). Baina, transakzio hori ez da erregistratu. Sozietateak 2015ean ekintza judizialak hasi zituen txosten honen datan amaituta ez dagoen kontratua deuseztatzeko.

ALEGAZIOA

Egoera hori 2017ko ekitaldian zuzenduko da.

III. BARNE KONTROLEKO ETA KUDEAKETA PROZEDURAKO SISTEMEI BURUZKO OHARRAK

Atal honetan, jaso egiten dira jarduera ekonomiko-finantzarioa zuzentzen duten printzipioak betetzean eragin garrantzitsurik ez duten hutsuneak, baita kudeaketa hobetzen adierazitako prozedurazko alderdiak ere.

III.1 URREKONTUA, KONTABILITATEA ETA DIRU SARRERAK

- Udalak aurrekontua gauzatzeko faseak (ADO) metatu zituen eskuratzeko guztietarako. Gainera, gastua eta ordainketa aldi berean erregistratu zitu azken horren datan. Hala, 2015ean, aurrekontuz kanpoko kontrola egin zuen aitortutako obligazioen eta aurrekontuaren gauzatzeko-mailaren gainean.

ALEGAZIOA

Udalak gastu-faseak ADO moduan gauzatzen ditu. Erakundearen gastu gehienak kontratu txikiei eta gastu arrunteko faktura helbideratuei dagozkie. Kasuetako lehenean, erakundeak horiek agindu eta data berean ordaintzen ditu. Helbideratutako fakturei dagokienez, hirugarrenak haiek helbideratzen dituen unean kontabilizatzen dira.

Bestalde, erakundearen inbertsioak ere ADO moduan egiten dira; baina, txostenean adierazten denez, aurrekontuz kanpoko kontrola egiten da. Horrek aurrekontu-erabilgarritasuna ziurtatzen du haiek kontabilizatzeko.

Nolanahi ere, Udalak kontuan hartuko du adierazitako oharra, eta ahal den kasu guztietan aplikatuko du.

- Ibilgailuen gaineko eta sei hilean behingo zakarren gaineko urteko errolda Alkatetzaren dekretu bidez onartu beharko lirateke, ebazpena jendaurrean jarrita eta, aldi berean, zerga-bilketarako borondatezko aldian ezarri ahal izanda.

ALEGAZIOA

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren urteko errolda hura kobratzeko aldian argitaratu zen, eta Alkatetzaren dekretu bidez onartu zen (IX. eranskina). Era berean, 1. eta 2. seihilekoei dagokien zaborren errolda Alkatetzaren dekretu bidez onartu zen, baina ez zen ALHAOn argitarako, hutsegite administratiboaren ondorioz (X. eranskina).

- Zerga nagusiei buruzko ordenantzak 2003an argitaratu ziren. Foru-araudian aldaketak izan dira, hura eguneratzea gomendatzen dutenak. Komenigarria litzateke, halaber, udal-tasen ordenantzak bildu eta argitaratzea.

ALEGAZIOA

Udalaren zerga-ordenantzak eguneratzeko gomendioari eta haien testuak osorik argitaratzeari dagokienez (horiek ahalik eta hoberen ulertzeko), lehenbailehen egingo da.

- Guardiako eskola publikoak 3 udalerrri mugakideri egiten die zerbitzua. Horiek 24.919 euroko ekarpena egin zuten Udalarri 2015ean, mantentze-lanetan parte



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

hartzeko. Komenigarria litzateke administrazioen arteko lankidetzaz hori hitzarmen bidez arautzea.

ALEGAZIOA

Bizitegiko udalerrriaren arabera Eusko Jaurlaritzak egin duen ikasleen banaketaren ondorioz, Guardiako ikastetxeak Leza, Samaniego, Bilar eta Lapuebla de Labarca udalerrietako ikasleak hartzen ditu. Horren ondorioz, ekitaldiko gastuak hainbanatu egiten dira udalerrri bakoitzeko ikasle kopuruaren arabera. Ez dago formalizatutako hitzarmenik, baina hainbanaketa eskuarki kobratu ohi da.

- Udalak aldizka egiaztatu beharko lituzke tributu-zorren kontabilitate-saldoak, zerga-bilketako sistema osagarriaren informazio zehatza baliatuta. Era berean, komenigarria litzateke AFAko zerga-bilketa exekutiboko zerbitzuari aldizka eskatzea eskura dituen Udalaren ordainagiri eta likidazioen xehetasuna, kontabilitate-informazioa egiaztatu ahal izateko.

ALEGAZIOA

Zerba-bilketako programa behin baino gehiagotan migratu denez, hura kontrolatzea zaila da. Izan ere, balio batzuk oker intsuldatu dira. Era berean, eskuragarri zegoen azken programaren konfigurazioa ez zen egokiena Udalaren egoerarako. Beraz, egun, hura zuzendu egin da zerga-bilketaren gainean kontrol handiagoa egin ahal izateko.

Zerga-bilketa exekutiboari dagokionez, Udalaren zerga-bilketako programak ez du aukerarik ematen diru-sarrerak kontabilizatzeko Arabako Foru Aldundiko Agentzia Exekutiboak egiten duen modu berean. Hortaz, desegokitasunak daude Aldundiak eskainitako datuen eta Udalean daudenen artean; batik bat, premiamenduko gainkarguak, interesak eta kostuak direla eta.

Nolanahi ere, ahalik eta kontrol handiena egingo da ondorengo ekitaldietako diru-sarreraren gainean.

- 2015eko abenduaren 31n, OHZrekiko saldo zordun 148.396 euro zen. Komeni da zerga-bilketako prozedura exekutiboak osatzea, bahiturara joz, eta zorren preskripzioa saihestea.

ALEGAZIOA

148.396 euroak probidentziazatuta eta Arabako Foru Aldundiko Agentzia Exekutiboari bidalita daude. Izan ere, Udalak erakunde horretan ordezkatzuta du udal-sarreraren bilketa exekutiboa (XI. eranskina).

- Udal Sozietatearen jarduerara mugatua dela-eta, komenigarria da hura desegitea.



ALEGAZIOA

Prozedura judizialak aribidean daudenez, ezinezkoa da hura desegitea prozedura horiek ebatzi arte.

III.2 LANGILEAK

- Lanpostu-zerrendak ez ditu adierazten 7 funtzionarioen berariazko osagarriak. Gainera, ez dago Udalaren erabakirik haien kopuruak finkatzeko eta lan-baldintzak finkatzeko. Lan-kontratudun langileei dagokienez, lanpostu-zerrenda postuaren izendapena adieraztera mugatzen da, haren kontratuak arautuko dituen berariazko erregimenik zehaztu gabe. Alderdi horren inguruan ez dago ere Udalbatzaren erabakirik.

ALEGAZIOA

2015eko aurrekontua luzatuta dago. Beraz, 2013ko abenduaren 27ko Udalbatzaren bilkuran zerrenda bat onartuta dago. Zerrenda horretan langile-gastu guztiak daude jasota, lanpostu bakoitzera osagarri guztiak barne direla (*ikus XII. eranskina*).

- 2015ean indarrean dauden obrako edo zerbitzuko zortzi lan-kontratu antzeman dira, nahiz eta horiek 2012an formalizatu ziren. Beste bi kasutan, hurrenez hurren berrikuntzak egin dira 2007tik. Egokiagoa litzateke bitartekotasun-kontratuak formalizatzea lanpostu-zerrendan hutsik dauden 10 lanpostuak betetzeko, eta modu iraunkorrean zuzkitu daitezke aginduzko hautaketa-prozesuaren bidez.

ALEGAZIOA

Estatuaren Aurrekontu Orokorretan dauden murrizketen ondorioz, ezin izan ziren bidezko lan-eskaintza publikoak egin. Gainera, udal-langileetako batzuek baja iraunkorra hartu dute. Ondorioz, lanpostu horiek premiaz bete behar izan ziren, oinarritzko zerbitzuak egiten jarraitu ahal izateko erakundearen ohiko funtzionamenduari eusteko.

- Enplegatu guztiei euren ordainsarien % 0,6 ordaindu zitzairen produktibitate-osagarriaren kontzeptupean, guztira 3.337 euroko zenbatekoaz, 2015ean. Udalbatzak osagarria ordaintzea onartu zuen eta horretarako funts bat ezarri zuen. Hura enplegatuei ordaindu zitzairen euren soldaten proportzioan. Alabaina, osagarri horren xedea da funtzionarioak bere lanpostuan jarduteko etekin berezia, interesa edo ekimena ordaintzea.



ALEGAZIOA

Hain zuzen, Udalbatzak, 2015eko abenduaren 21eko bilkuran, Udaleko enplegatu guztiei % 0,6ko produktibitate-osagarri bat ordaintzea erabaki zuen, EUDELen zirkularrean ezarritako baldintzei zorrotz jarraituz, udal honek kontratatutako lan-aholkularitzako kanpoko zerbitzuari dagozkion ordainsari-taulak eguneratzeari dagokionez (*ikus XIII. eranskina*).

- *Udalbatzaren 2015eko erabakiak dietak ezartzen zituen zinegotziak bileretara joateko. Erabaki hori ez zen ALHAOn argitaratu. 1.850 euro ordaindu ziren 2015ean.*

ALEGAZIOA

Bertaratzearen ondoriozko dieta guztiak 2014ko ekitaldiko aurrekontua gauzatzeko arauan jasotakoaren arabera ordaindu ziren. Berori 2015eko ekitaldirako luzatu zen. Era berean, dieta guztiei zegokien PFEZren atxikipena ezarri zitzairen.

III.3 KONTRATAZIOA

- *Erosketa txikitzat bideratu da zerbitzu baten eta hornidura baten zuzeneko esleipena, guztira 48.865 euroko zenbatekoaz. Haien prozedura negoziatuaren bitartez bideratu behar ziren (ikus A.11 eranskina). Gainera, gomendatu beharra dago zerbitzu juridikoak kontratatzean prestazioak eta zerbitzu-sariak aurretiaz ezartzea.*

ALEGAZIOA

Telefono-zerbitzuak kontratu txikitzat kontratatu ziren, kontratu horiek aspaldidanik daudelako eta urtero luzatzen direlako. Bestalde, gasolio-horniduraren zerbitzua udalerriko gasolio-hornitzaile bakarrak egiten du aspaldidanik.

III.4 TRANSFERENTZIAK ETA DIRU LAGUNTZAK

